

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

1/2021 TXOSTENA

Gaia: Bermeoko Mendiluz Udal Hilerriaren Barne-Arautegia onartzea

Espediente tramitatzalea: Idazkaritza saila

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0252 (2020)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

Aurrekariak

Lehena.- 2020ko abenduaren 7ko idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren erabaki proposamenaren arabera Bermeoko Mendiluz Udal Hilerriaren Barne-Arautegia onartzeko beharrezana dago.

Bigarrena.- 2020ko irailaren 10etik 25era arte kontsulta publikoa egin da Bermeoko udaleko webgunean, konpondu nahi diren arazoak egokitasuna, helburua eta beste aukera erregulatzialeak azalduz.

Hlugarrena.- 2020ko abenduaren 7ko idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako proposamenaren arabera kontsulta publikoan ez da ekarpenik jaso.

Laugarrena.- 2020ko abenduaren 7ko idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak erabaki proposamenaren Bermeoko Mendiluz Udal Hilerriaren Barne-Arautegia onartzeko proposamena egin du.

Oinarri juridikoak

1. Aplikagarria den araudia



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/01/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/01/2021
14:05:54

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0252
Data: 07/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50005B19500Y8X6E9Z0E6L7

CSV: 07E50005B19500Y8X6E9Z0E6L7



- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 65.2, 70.2 artikulua)
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakundeen zerbitzuen araudia onartzen duena (23-29 artikulua)
- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)
- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129 eta 133 artikulua)

2. Azterketa juridikoa

A) Oinarrizko kontzeptuak

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeak 4.1. a artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizaziorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeek ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten.

Izan ere, Bermeoko Udalaren eskumena da hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza, kudeaketa eta osasun arloko kontrola egitea, Toki erakundeen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.k eta 26.1.a artikuluen arabera eta Euskadiko Toki Erakundeen 2/2016 Legearen 17.1.12 atalaren arabera.

Gainera, urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen sanitate-alderdiei buruzko erregelamendua onartu da. Dekretu horren arabera, Udalek ordenantzak onartu behar dituzte erregelamenduan jasotakoa garatzeko.

Hori horrela, zuzena da Mendiluz Udal Hilerriaren Barne-Arautegia landu, izapidetu eta onartzea.

Araudia onartzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrezana,



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 18/01/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/01/2021
14:05:54

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0252
Data: 07/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50005B19500Y8X6E9Z0E6L7



efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

B) Jarraitu beharreko prozedura

39/2015 Legearen 132 eta 133. artikulua, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikulua eta 7/1985 Legearen 49 eta 70. artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoak izan behar da:

a) Ordenantza udalaren urteko plangintzan aurreikusita egon behar da (39/2015 legearen 132art).

Plangintzan aurreikusita dago.

b) Administrazio Orokorreko Teknikariak justifikatuko du Mendiluz Udal Hilerriaren Barne-Arautegia onartzeko beharrezana eta erregulazio oneko printzipioak errespetatu direla.

Justifikatu du.

c) Hala dagokionean, ordenantza aldatzeko proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienen puntu hauei buruz:

- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Izapide hori prozeduran burutu izan da.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/01/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/01/2021
14:05:54

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0252
Data: 07/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50005B19500Y8X6E9Z0E6L7

CSV: 07E50005B19500Y8X6E9Z0E6L7



d) Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak Mendiluz Udal Hilerriaren Barne-Arautegia onartzeko erabaki proposamena egingo du.

Erabaki proposamena egin da eta edukiari dagokionez zuzena da.

e) Kontuhartzaileak txostena egin beharko du kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Kasu honetan ordenantzaren aldaketak ez du eragin eta erreperkuzio ekonomikorik, Bermeoko Udaleko Ekonomia, Ondare eta Errenta teknikariak 2020ko abenduaren 22an zehaztutakoarekin bat.

f) Idazkari nagusiak txostena egin beharko du.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak eman beharko dira.

g) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman beharko du.

h) Osoko bilkuraren ordenantza hasieraz aldatzea onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorritz.

i) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatuko dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, ediktuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

j) Hala dagokionean, ordenantzak pertsonen eskubide eta interes legitimoen eragiten dienean, Udalak webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzan dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei.

Legeak ez diosku entzunaldi hori noiz burutu behar den, baina praktikan egoki ikusten da entzunaldi hori informazio publikoaren fasearekin batera egitea, proportzionaltasuna, efikazia eta efizientzia handiagoa bermatzeko, eta, beti ere, herritarren eta elkarten eskubideak erabat errespetatuta.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 18/01/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/01/2021
14:05:54

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0252
Data: 07/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50005B19500Y8X6E9Z0E6L7



k) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean Mendiluz Udal Hilerriaren Barne-Arautegia automatikoki behin betikoz onartuta egongo dela baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

l) Erabakia eta aldaketen testua argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta indarrean sartuko da BAOn argitaratu eta 15 egun igarota, 7/1985 Legearen 65.2 artikulua arabera.

Ondorioak

Espedientea aztertu ondoren, Mendiluz Udal Hilerriaren Barne-Arautegia onartzeko proposamenari aldeko txostena egiten zaio.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztuta datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

Oh. Orri oinean sinatzailea eta data



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/01/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/01/2021
14:05:54

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0252
Data: 07/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50005B19500Y8X6E9Z0E6L7

CSV: 07E50005B19500Y8X6E9Z0E6L7

